2. mailako <u>Hirigintza: sarrera</u>

PLAN PARTZIALA

11. ariketa



Plan Partziala garatzeko eremua

Bergarako Mariaren Lagundiaren eskola atzeko lurzoru urbanizagarrian **Plan Partzial** bat landuko du talde bakoitzak, honako ezaugarriak betez:

- Goian azaldutako eremuan barne, 2 hektareako eremua zedarrituko da.
- Etxebizitza-erabilera izango da nagusi.
- Eremu barneko eraikinak bota daitezke, ordenazioz kanpo daudela uste bada.
- Ekipamendu publikoak ez diren eraikinen lurzoruaren mailaren gaineko eraikigarritasuna: **<u>0,4 eta 1,3 m^2/m^2 artean</u>**.
- Ekipamendu publiko bat (zehaztu erabilera eta neurria: eredu bat erabili).
- Kaleetaz aparteko espazio libre bat (plaza edo berdegunea), gutxienez 2 ha-ko eremuaren azaleraren %15ekoa.
- Etxebizitza-tipoa(k) azaldu beharko dira (eredu bat edo batzuk erabili).
- Inguruko eta proposatutako antolakuntzen komunikazio-sareen azterketa egin beharko da.
- Hirigintza-parametroak eman beharko dira, aurreko ariketan bezala (eraikigarritasuna, betetze edo okupazioa, eta dentsitatea).

Eskatutakoa azaltzeko beharrezkoak diren planoak emango dira (kokapen-planoa, oinplantak, ebaketak eta taulak), paperean din A-1 formatuan eta Cdan PDFetan. Gogoratu hobe dela plano gutxi baina osatuak egitea.

<u>Maiatzaren 26</u>ko klasearen hasieran emango da bukatuta.

Donostian, 2009ko apirilaren 21ean
Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño